1480

119/1990 DEKRETUA, maiatzaren 2koa, Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio Publikoaren eremuan ekonomia- eta arauketa-Kontrolaz baliatzea arautzen duena.

Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio Nagusiak eta Instituzionalak, bere kabuz, burutzen duen ekonomi ihardunean duen autokontrola, Euskal Herriko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko 1/1988 Legegintza Dekretuko 60. atalean zehaztu eta jasotzen da, Kontuhartze Kontrola izena hartzen duten hainbat kontrol-bide erabiliz horretarako, horietatik garrantzirik gehien duena ekonomia-eta arauketa-kontrola dela, atal horretako 6. zenbakian adierazitakoa hain zuzen.

Harmen orokorreko xedapen arauemaleak «legaltasun» kontuhartze kontrolpetik kanpo zeudela uste izan da aspalditik, salbuespenik ere izan dela, kontrol horrek, Euskal Autonomi Elkartean, ekonomia- eta arauketa-kontrola izena hartu duelarik; eremu horretan, egon daitezkeen bi kontrol-moeta horiek iruzurkeriz gauzatu daitezkeenez, ekonomia- eta arauketa-kontrolaz baliatzea erregulatuko duten arauak ezartzea aholkugarria da, izango duen eremua, harmena, edukia eta mugak, zein organok erabili behar duen eta izango dituen ezaugarririk nabarmenenak, zeintzuk diren adieraziz.

Euskal Autonomi Elkartearen 1990. urterako Aurrekontu Nagusiak onartzeari buruzko abenduaren 22ko 10/1989 Legeak, bestalde, ekonomia- eta arauketa-kontrolaz baliatzea jaurlaritzak arautuko duela dio Xedapen Gehigarrietatik Laugarrenean, eta hori, Euskal Herriko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko maiatzaren 17ko 1/1988 Legegintza Dekretuko 60-6 atalean definitutako moduan, Xedapen Gehigarri horretan jasotzen diren oinarrizko erizpide eta prozedura-ekinbideen arabera.

Bidebatez, azterlanaren gai izan den materia zati batetan eratu duten barruko arauak berrikuskatzea beharrezkoa da; arauok, Jaurlaritza Kontseiluaren 1984.eko maiatzaren 22ko akordioaren eta Kontuhartze Zuzendaritzaren 12/84 eta 19/84 Zirkularren bidez integratu dira eta berriz ere kontutan hartzea eskatzen dute.

Honekin tajutu nahi den arauaren balioa behinbehingokoa izango da, izan ere, kontuhartze-eginkizunaren antolaketak dituen alderdi estrukturalak, lege maila izango duen Arauz landuko dira bere garaian, horrekin, Euskal Herriko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen garapenak eskatzen duen eta ogasun-finantza arloetakoa den lege-bilduma osatuko da, Euskal Autonomi Elkarteko Ogasunak berarekin dakarren eraketa juridiko nahaspilatsuaren bilgunea izango delarik.

Hori horrela, Ogasun eta Finantza Sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritza Batzordeak 1990.eko maiatzaren 2an egindako bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

1480

DECRETO 119/1990, de 2 de Mayo por el que se regula el ejercicio del Control Económico-Normativo en el ámbito de la Administración Pública de la Comunidad Autonóma de Euskadi.

. El autocontrol que ejerce a su propia instancia, la Administración General e Institucional de la Comunidad Autónoma de Euskadi sobre su actividad económica, ha sido definido e integrado en el artículo 60 del Decreto Legislativo 1/1988 sobre disposiciones vigentes en materia de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, por una serie de controles, todos ellos bajo la denominación genérica de Control Interventor, siendo uno de los más innovadores el denominado, en el número 6 del artículo citado, control económico-normativo.

Habiéndose entendido tradicionalmente, salvo excepción, que las disposiciones normativas de alcance general, no se encontraban sometidas al denominado control interventor «de legalidad», llamado control económico-fiscal en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en ese mismo ámbito y en relación al posible solapamiento de ambos tipos de control, los dos posibles, se hace aconsejable el establecimiento de unas normas que regulen el ejercicio del control económico-normativo aclarando su ámbito, alcance, contenido y límites, órgano que ha de ejercerlo y características más sobresalientes en los que se encuadra.

Por otro lado, la Ley 10/1989, de 22 de Diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para 1990 establece en su Disposición Adicional Cuarta que el Gobierno regulará el ejercicio del Control Interventor económico-normativo en los términos definidos en el artículo 60-6 del Decreto Legislativo 1/1988, de 17 de Mayo, sobre Disposiciones vigentes en materia de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, de conformidad a los principios básicos y aspectos procedimentales que asimismo se recogen en la propia Disposición Adicional citada.

Del mismo modo se hace precisa una revisión de las normas internas que han ido ordenando de modo parcial la materia objeto de estudio y que, integradas por el acuerdo de 22 de Mayo de 1984 del Consejo de Gobierno y las Circulares 12/84 y 19/84 de la Dirección de Intervención, reclaman su nueva consideración.

El valor de la norma que se puede aventurar no puede ser mayor que provisional toda vez que aspectos estructurales de organización de la función interventora esperan el momento de ser abordados en profundidad mediante la Norma de rango legal que culmine el bloque de legalidad hacendístico-financiera que reclama el desarrollo de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, verdadero tronco y piedra angular del complejo entramado jurídico que supone la Hacienda de esta Comunidad Autónoma.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Hacienda y Finanzas y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión de 2 de mayo de 1990,

XEDATU DUT:

*1. atala.*– 1. Lege aurreproiektuak, Legegintza Dekretuaren itxura hartzen duten izaera orokorreko Xedapen proiektuak, eta Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio Nagusiaren organu eskudunek eman ditzaketen Aginduak edo Dekretuak fiskalizatzea da ekonomia- eta arauketa-Kontuhartze Kontrolaren helburua, eta arau honetan jasotako manuekin bat eginik burutuko da.

Erakunde Autonomoetan horretarako ahalmenak eskuratuta dituzten Agintariek eta Organuek arauindarrez emango dituzten Erabaki proiektuak ere hartuko ditu aurreko idazatian aipatutako horrek.

2. Burutze-lana bakarrik eskatzen duten edo arauemaleak ez diren eta ekonomia- eta fisko-kontrolpekoak diren amdinistrazio ekintzak ez dira sartzen ekonomia- eta arauketa-kontrolpean, eta ekonomi edukia duten Xedapen orokorrak ere ez.

Aurreko idazatian ezarritakoaren kaltetan gabe, azkenekoz aipatutakoon berri Kontuhartze Zuzendaritzari emango zaio, hiru eguneko epearen barruan, onartu aurretik, ezaugarri ekonomikorik ez dela azaldu egiaztatu dezan. Hori aztertu ondoren, ekonomia- eta arauketa-kontrolpean egon behar dutela uste izango balu Kontuhartze Zuzendaritzak, hurrengo ataletan ohartemandako izapideak bete beharko dira. Epe horren barruan, Kontuhartze Zuzendaritzaren ustetan, ez-adostasunik agertuko ez balitz, prozedurari aurrera ekingo zaio.

3. Aurreko bat zenbakian ohartemandako ondorioetarako, honako hauek fiskalizatuko dira bereziki eta beti:

a) Zuzenbide Pribatuko Ente Publikoak, Erakunde Autonomoak eta Baltzu Publikoak sortzen, ezabatzen eta berregituratzen dituzten xedapenak.

b) Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioan organuak edo entitateak sortzen, kentzen eta berregituratzen dituzten xedapenak.

c) Aurrekontuak gauzatuz, dirulaguntza egitaraueta rako deialdia egiten duten xedapenak.

*2. atala.*– 1. Ekonomia- eta arauketa-kontrolak eragin ekonomikoaren neurtzea izango du helburu lez, eragin horrek, aurrekontuari buruzko alderdiak, bai dirusarrera zein gastu publikoei dagokienez, eta aurrekontuaz bestekoari buruzko alderdiak, fiskalizaketaren gai diren arau edo xedapenei dagokienez, hartuko ditu; horrez gain, honako alor hauek ere jasoko ditu:

a.– Proposatutako kreditur ik edo finantzaketabiderik dagoen edo ez eta horren egokitasuna egiaztatzea, kasuan kasuko arauak edo xedapenak beharbesteko diru-baliabideak izan ditzaten.

b.– Arau edo xedapen hori Euskal Autonomi Elkarteko Diruzaintza Nagusiak une bakoitzean indarrean duen erregimenari egokitzea, bai ondareari, kontaduritzari, kontratazioari, norbere zergakerari, zorpetzeari eta bermeak emateari dagokienez, bai eta Aurrekontu Erregimenari buruzko Legean eta Euskal Autonomi Elkarteko Aurrekontu Nagusiei buruzko urteroko Legeetan jasotako aurrekontu eta gastu eta dirusarrera publikoak ekekutatzeko erregimenari ere.

DISPONGO:

*Artículo 1.*– 1. El Control Interventor económico-normativo tendrá por objeto la fiscalización de los anteproyectos de Ley y proyectos de Disposición de carácter general que revistan la forma de Decreto Legislativo, Decreto u Orden que se prevea dictar por parte de los órganos competentes de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y se realizará de conformidad a las prescripciones contenidas en la presente norma.

Se extenderá, asimismo, a los proyectos de Resolución que con carácter normativo se prevea dictar por las Autoridades y Organos que en los Organismos Autónomos tengan atribuidas facultades para ello.

2. Se excluyen de control económico-normativo los actos administrativos de mera ejecución o de carácter no normativo, sujetos a control económico-fiscal, así como las Disposiciones generales sin contenido económico.

Sin perjuicio de lo establecido en el párrafo anterior, estas últimas serán puestas en conocimiento de la Dirección de Intervención a fin de que en el plazo de tres días verifique la ausencia de contenido económico con carácter previo a su aprobación. Si del examen de las mismas, dicha Dirección dedujera que están sujetas al control económico normativo habrán de cumplirse los trámites previstos en los artículos siguientes. Si en el plazo indicado la Dirección de Intervención no manifestara discrepancia podrá proseguirse el procedimiento.

3. A los efectos contemplados en el número uno anterior se fiscalizarán en particular y en todo caso:

a) Las disposiciones mediante las cuales se proceda a la creación, extinción y reestructuración de Entes Públicos de Derecho Privado, Organismos Autónomos y Sociedades Públicas.

b) Las disposiciones mediante las cuales se proceda a la creación, supresión y reestructuración de órganos o entidades en la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

c) Las disposiciones mediante las cuales se proceda a la convocatoria, en ejecución presupuestaria, de programas subvencionales.

*Artículo 2.*– 1. El control económico-normativo tendrá como finalidad la de evaluar la incidencia económica, tanto presupuestaria en ingresos y gastos públicos como extrapresupuestaria, de las normas o disposiciones objeto de fiscalización y abarcará, además, los siguientes aspectos:

a.– La comprobación de la existencia e idoneidad del crédito o financiación propuesta para dar cobertura presupuestaria a la norma o disposición de que se trate.

b.– La adecuación de la norma o disposición al régimen de la Tesorería General del País Vasco, patrimonial, contable, de contratación, tributario propio, de endeudamiento y de concesión de garantías vigente en cada momento, así como al régimen presupuestario y de ejecución del gasto e ingreso públicos recogidos en la Ley de Régimen Presupuestario y en las Leyes anuales de Presupuestos Generales de Euskadi.

2. Ekonomia- eta arauketa-kontrola, honako alor hauetan ere sar daiteke:

a.— Kontrolpean dagoen arauak edo xedapenak, eurak aipatzen dituzten ekonomia- eta arauketa-egitarauen ekintza eta helburuetan izan dezaketen eraginaz eta horiek egokitzeaz.

b.— Proposatutako arauaren edo xedapenaren finantz bideragarritasunaz, kuantifikatu egin beharko dela.

c.— Ekonomiaren munduan eta Euskal Autonomi Elkarteko Diruzaintza Nagusiaren gaietan duten eraginarengatik garrantzi handikoak izan daitezen gainerako alderdiez.

*3. atala.*— Ekonomia- eta arauketa-kontrolpeko xedapenek Ekonomi Txosten bat aurkeztuko dute, oinarrizko agiri lez, honako alderdi hauek jasoko dituela laburbilduta:

a) Indarrean sartzeak sor diezazkiokeen aurrekontu-gastu edo -dirusarrerak kuantifikatzea, horien artean korrenteak eta kapital-eragiketei dagozkionak bereiztuz.

b) Aurrekontu gastuen finantzaketa, eraginik jasan duten baliabideak eta Euskal Autonomi Elkarteko Aurrekontu Orokorretikakoak ez diren finantzabideak adieraziz.

c) Proposatutako arauaren gastu edo dirusarreren ebaluaketaren eta manuen arteko elkarregokitzapentaula, zein aurrekontu-egitarauan eransten den adieraziz.

d) Lortu nahi diren helburuak, jarraibide nagusiak eta proposatutako erregulaketaren aurrekontu juridiko habilitagarriak ezagutzea bidera dezaten datuak, txostenak eta azterlanak bidaliko dira, baita dagokion kontuhartze kontrolaren txostena ematea bidera dezatenak ere bai.

*4. atala.*— 1. Ekonomia- eta arauketa-kontrola derrigorrez bete-beharrekoa izango da eta kontroltxostena eman ondoren gauzatuko da.

2. Ekonomia- eta arauketa-kontrolaren txostena hamabost eguneko epean egin beharko da, Kontuhartze Zuzendaritzak arau- edo xedapen-proiektuaren Testua eskura dezan egunetik kontatzen hasita, Testu horrekin batera, behar-bezala betetako memoria eta duen edukiaren arabera beharrezkoak diren agiriak aurkeztuko dira.

Espedientea eskuratu ondoren, ondo beteta aurkeztu dela egiaztatu beharko du Kontuhartze Zuzendaritzak. Horrela izango ez balitz, beharrezko datuak edo agiriak aurkezteko aginduko dio bidaltzaileari, hori gertatuz gero, aurreko idazatian adierazitako hamabost eguneko epea, eskatutako agiriak eskuratutako egunetik kontatuko da.

Bere iharduna betetzeko beharrekoak diren txostenak, aholkularitza tekniko, aurretikoak edo agiriak eska ditzake Kontuhartze Zuzendaritzak behar-hainbat instantziatan. Agiriok derrigorrezkoak izan daitezenean bakarrik luza daiteke, beste hamar egunetan, ekonomia- eta arauketa-txostena bidaltzeko epea. Luzapen horren berri txostena eskatu duen organuari emango zaio.

3. Txosten hori ez bada egiten adierazitako epean, aldezkoa dela ulertuko eta iharduketek aurrera jarraituko dute.

2. El control económico-normativo podrá pronunciarse asimismo sobre:

a.— La incidencia y adecuación de la norma o disposición sujeta a control en los objetivos y acciones de los programas económico-presupuestarios a que se refiere.

b.— La razonabilidad financiera en términos cuantificables de la norma o disposición propuesta.

c.— Aquellos otros extremos que por su incidencia y trascendencia en la actividad económica y en las materias propias de la Hacienda General del País Vasco resu[ltan r]elevantes.

*Artículo 3.*— Todas las disposiciones sujetas a control económico-normativo acompañarán como documento básico una Memoria Económica en la que de modo sucinto se contendrán los siguientes extremos:

a) Cuantificación de los gastos o ingresos presupuestarios que ocasione su entrada en vigor con distinción de los que sean corrientes y de los que sean de operaciones de capital.

b) Financiación de los gastos presupuestarios con indicación de los recursos que se vean afectados y fuentes de financiación al margen de los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

c) Tabla de correspondencia, en su caso, entre los preceptos y la evaluación de gastos o ingresos de la norma propuesta con indicación del programa presupuestario en que se inserta.

d) Asimismo, se remitirán todos aquellos datos, informes, estudios, etc. que permitan conocer los objetivos perseguidos, las líneas generales y los presupuestos jurídicos habilitantes de la regulación propuesta, y cuantos otros que faciliten la emisión del informe del control interventor correspondiente.

*Artículo 4.*— 1. El control económico-normativo tendrá carácter preceptivo y se ejercerá mediante la emisión del correspondiente informe de control.

2. El informe de control económico-normativo deberá evacuarse en el plazo de 15 días a contar desde la recepción, en la Dirección de Intervención, del Texto del proyecto de disposición o norma acompañado de la memoria debidamente cumplimentada y de los documentos que se precisen en función de su contenido.

Recibido el expediente, la Dirección de Intervención constatará que el mismo está completo. En el supuesto de que no fuera así requerirá al órgano remitente para que aporte los documentos o datos que sean necesarios, en cuyo caso el plazo de 15 días previsto en el párrafo anterior comenzará a contar desde la recepción de la documentación solicitada.

La Dirección de Intervención podrá solicitar los informes, asesoramientos técnicos, antecedentes o documentos necesarios para el desempeño de su función a cuantas instancias fuese pertinente. Cuando éstos sean imprescindibles, y, con carácter excepcional, el plazo establecido para la emisión del informe económico-normativo podrá ampliarse por otros 10 días. Tal ampliación se notificará al órgano solicitante del informe.

3. De no evacuarse el informe en el plazo señalado éste se entenderá favorable y podrán proseguirse las actuaciones.

*5. atala.*— 1. Ekonomia- eta arauketa-kontrolpeko arauak eta xedapenak Jaurlaritza Kontseiluari aurkeztu beharrik ez badago, horien berri izan eta onartu ditzan, eta horrez gainera, Dekretu honetako bigarren atalaren 1 zenbakiko a) eta b) letretan adierazitakoaren ondorioz, txostena aurkakoa baldin bada, arrazoi eta guztiko zuzenketa-idazki bidez jakinaraziko da. Horrelakoetan, zuzenketa-idazkia egiteak etendu egingo du espedientearen izapideketa, zuzenketa gauzatu artean.

2. Zuzenketa gauzatuarren, prozedurari ekin nahi badio organu proposatzaileak, horren aurka izan ditzakeen alegazioen berri emango dio Kontuhartze Zuzendaritzari, hark izan dezan arrazoitutako idazkia ere aurkeztu beharko dela, Zuzendaritzak espedienteari erants diezaion; eta aztergai hori Jaurlaritzaren Kontseiluak egingo duen lehen bilkuraren Gai Zerrendan sartuko da, horretazko behin-betiko erabakia har dezan.

*6. atala.*— Arauak eta xedapenak ekonomia- eta arauketa-kontrolerako txostena eskatu eta lortu gabe onartzeak, 4. atalean ezarritakoa salbuetsiz, horren ondoriozko ekintzei buruz zuzenketa-idazkia ematea ekarriko du ekonomia- eta zerga-izapideketan, horretarako, kontuhartzearen ustez, arau edo xedapen horiei buruz emandako txostena zuzenketa-idazki bidezkoak izan beharko du.

Horrelakoetan, Jaurlaritzaren Kontseilura bidaliko da espedientea, bidezko deritzon erabaki har dezan.

*7. atala.*— Ekonomia- eta arauketa-kontrolpeko arauaren edo xedapenaren izaerak eragoztenez baldin badu, Kontuhartze Kontrolaren alorrean sartzen diren gainerako kontrol-moeta guztiak erabil daitezke. Zernolako hori, espedientean jaso beharko da.

*8. atala.*— Ekonomia- eta arauketa-kontrola,aAraua edo xedapena horretarako gai den organuaren aurrean, horrek onartu dezan, jarri aurre-aurretik, gauzatuko da.

Lege aurreproiektuak direnean, Jaurlaritzaren Kontseiluak hori aztertu aurre-aurretik gauzatuko da ekonomia- eta arauketa-kontrola.

*9. atala.*— Ogasun eta Finantza Saileko Kontuhartze Zuzendaritzari dagokio ekonomia- eta arauketa-kontrola gauzatzea, Dekretu honetan araut但tako moduan; bere lana egiteko, bere ustez beharrezkoak diren instantzietan, txostenak, teknika aholkuak, aurretikoak edo behar-hainbat agiri eskatzea, bere lanaren zereginetariko bat da.

*Artículo 5.*— 1. En los casos en que las normas o disposiciones sujetas a control económico-normativo no deban ser sometidas al Consejo de Gobierno para su conocimiento y aprobación, y el informe sea desfavorable y traiga su causa de las letras a) y b), del artículo 2 número 1 del presente Decreto, se manifestará mediante nota de reparo motivada. En estos supuestos, la emisión del reparo suspenderá la tramitación del expediente hasta que el reparo sea solventado.

2. Cuando, a pesar del reparo, el órgano proponente quiera continuar el procedimiento, manifestará a la Dirección de Intervención sus alegaciones discrepantes con la nota motivada en que aquel se exprese, para que ésta las una al expediente y tramite la inclusión del asunto en el Orden del Día de la primera sesión que celebre el Consejo de Gobierno, que resolverá definitivamente.

*Artículo 6.*— Con la salvedad de lo establecido en el artículo 4, la aprobación de normas o disposiciones sin recabar y obtener el correspondiente informe de control económico-normativo, originará la emisión de nota de reparo en trámite económico-fiscal respecto de los actos derivados de aquellas, cuando la intervención entienda que el informe que se hubiera emitido respecto de tales normas o disposiciones se hubiera manifestado mediante nota de reparo.

En estos supuestos, el expediente se elevará al Consejo de Gobierno al objeto de que se adopte la resolución a que hubiere lugar.

*Artículo 7.*— Cuando la naturaleza de la disposición o norma sujeta a control económico-normativo lo permita, podrán simultanearse con éste cualesquiera otros tipos de control de los que se integran bajo la denominación de Control Interventor. Este extremo deberá hacerse constar en el respectivo expediente.

*Artículo 8.*— El control económico-normativo se ejercerá en el momento inmediatamente anterior a que se someta tal norma o disposición a la aprobación del órgano que resulte competente para ello.

Cuando se trate de anteproyectos de Ley, el control económico-normativo se ejercerá en el momento inmediatamente anterior a su consideración por el Consejo de Gobierno.

*Artículo 9.*— Corresponde a la Dirección de Intervención del Departamento de Hacienda y Finanzas el ejercicio de control económico-normativo en los términos regulados en el presente Decreto, entendiéndose inherente a tal ejercicio la posibilidad de solicitar los informes, asesoramientos técnicos, antecedentes o documentos necesarios para el desempeño de la función a cuantas instancias fuese necesario.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*— Dekretu hau garatzeko eta burutzeko Arauak finkatzeko baimena ematen zaio Ogasun eta Finantza Sailburuari.

*Bigarrena.*— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako egunaren biharamunetik hartuko du indarra Dekretu honek.

Gasteiz, 1990.eko maiatzak 2.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Ogasun eta Finantza Sailburua,
ALFONSO BASAGOITI ZABALA.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*— Se autoriza al Consejero de Hacienda y Finanzas para que establezca las Normas de desarrollo y ejecución del presente Decreto.

*Segunda.*— El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, 2 de mayo de 1990.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Hacienda y Finanzas,
ALFONSO BASAGOITI ZABALA.

**1481**

130/1990 DEKRETUA, maiatzaren 8koa, Euskal Autonomi Elkartearen 1990.erako Diruegitamuaren 08020 egitarauan, Berregituraketa, eta 99020 egitarauan, Orohartzezko Diruizendapena, diruizendapenak sortarazten dituena.

Euskal Autonomi Elkarteko Arduralaritzaren Diruegitamu Nagusiak onartzen dituen abenduaren 22ko 10/1989 Legeak 425.900.000.000 pezetatan finkatzen du diruegitamu horren gastuen zerrenda ordainketarako diruizendapenei dagozkienetan, dirusarreren zerrenda hainbatekoa delarik.

Andoain eta Basauriko Enpresa Taldeek DENAC delakoari emandako partaidetza kredituak indargabetzearen ondorioz, korrituen eta kitapenen emaitza garbietatik sortzen diren ohartemaan gabeko dirusarrerak lortu dira 1990.eko ekonomi urtean.

Abenduaren 20ko 31/1983 Legearen 93 eta 94. atalean ezarritakoari darionez, dirusarrera gaindikin horrek diruizendapenak sortarazteko bide ematen du.

Horien ondorioz, Ogasun eta Finantza Sailburuaren saloz eta Jaurlaritzak 1990.eko maiatzaren 8an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

*1. atala.*— Euskal Autonomi Elkarteko Arduralaritzaren Diruegitamuaren dirusarrera zerrendan, 50010 egitarauaren 826 zertarakoan, 545.136.708 pezetako diruizendapen gaikuntza onartzea, 2 diru-atala, «DENAC delakoari amandako partaidetza maileguen itzulketa», eta horrek, 355.000.000,— pezetako ordainketa-diruizendapenak sortzen ditu Diruegitamu horren gastu zerrendaren 08020 egitamuaren 470 zertarakoan, 1 diru-atala, «Victorio Luzuriaga, S.A. enpresa birrantolatzeko Egitamuan ohartemandako lan doiketarako'0 eta 190.1136.708 pezetako diru izendapenak 680 zertarakoan, 1 diru-atala, «Orohartzezko Diruizendapena».

**1481**

DECRETO 130/1990, de 8 de mayo, por el cual se habilitan créditos en los programas 08020, Reestructuración y 99020, Crédito Global, del Presupuesto de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco para 1990.

La Ley 10/1989, de 22 de Diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco para 1990, establece que el estado de gastos del citado presupuesto totaliza, en cuanto a los créditos de pago la cantidad de 425.900.000.000 pesetas, ascendiendo el estado de ingresos al mismo importe.

En el ejercicio presupuestario de 1990 se obtuvieron ingresos no previstos provenientes de los resultado netos de los intereses y las amortizaciones por la cancelación de los préstamos participativos concedidos a DENAC por los Centros de Empresas de Andoain y de Basauri.

La óbtención de este exceso de ingresos permite proceder a su habilitación de conformidad con lo establecido en los artículos 93 y 94 de la Ley 31/1983 de 20 de Diciembre.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Hacienda y Finanzas, previa deliberación y aprobación del Gobierno Vaco, en su reunión del día 8 de Mayo de 1990,

DISPONGO:

*Artículo 1.*— Aprobar una habilitación por importe de 545.136.708 pesetas en el concepto 826, partida 2, «Reembolso de los préstamos participativos concedidos a DENAC», del programa 50010 en el estado de ingresos del Presupuesto de la Administración de la Comunidad Autónoma, lo cual genera créditos de pago por importe de 355.000.000 pesetas en el concepto 470, partida 1, «Para el ajuste laboral contemplado en el Plan de reordenación de la empresa Victorio Luzuriaga, S.A.» del programa 08020 y de 190.136.708 pesetas en el concepto 680, partida 1, «Crédito Global», del programa 99020, del estado de gastos del Presupuesto citado.